

KANBO HERRIA

Pirinio Atlantikoetako departamendua

ERABAKIEN AKTA

2020ko MAIRTXOAREN 2ko

Herriko Biltzarra

Bi mila eta hogeiko martxoaren bigarren egunean biltzera deiturik, herriko biltzarra Christian DEVÈZE, jaun auzapezaren lehendakaritzapean bildu da. Biltzarra arratseko 7etan hasi da.

Hor ziren: Christian Devèze, auzapeza, Eliane Noblia, Frédéric Bardin, Pascale Lespade, Didier Iraztorza, Eliane Aizpuru, Henri Saint Jean, Anne-Marie Pontacq, ordeak, Vincent Goytino, Christiane Hargain-Despéries, Patrice Dor, Yolande Huguenard, Jean-Jacques Lassus, Argitxu Hirigoyen, Jean-Noël Magis, Corinne Othatcegy, Peio Etcheleku, Roger Barbier, Carmen Gonzalez, Pascal Bourguet, Véronique Larronde, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Vincent Bru, Maryannick Hirigoyen, Camille Jenvrin, Bernadette Remeau, herri kontseilariak.

Ahalordeak: Corinne Othatcegy-k Yolande Huguenard-i, Maryannick Hirigoyen-ek Eliane Noblia-ri, Camille Jenvrin-ek Didier Iraztorza-ri, Bernadette Remeau-k Christiane Hargain-Desperies-ri.

1 – Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Argitxu Hirigoyen hautatu dute saioko idazkari izateko.

2 – Iragan biltzarraren aktaren onarpena (Auzapezak aurkezturik).

Herri Biltzarkideei proposatzen die 2019ko urriaren 28ko herri Biltzarraren akta onartzea.

Aho batez onartua.

3 – 2019ko kudeaketa kontuen bozkatzea (Auzapezak aurkezturik).

Herri biltzarkideei galdegina zaie 2019ko kudeaketa kontuak eta hilobi eta kolumbariumei buruzko aurrekontu gehigarria onartzea. Herriko biltzaileak egin dituen kudeaketa kontu hauek 2019ko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31 artean egin diren eragiketak erakusten dituzte, egun gehigarriarenak barne izanik, eta 2019ko administrazio kontuekin osoki bat egiten dute.

Aho batez onartua.

4 – 2019ko administrazio kontuen bozkatzea (Noblia andereak aurkezturik).

Auzapez jaunak proposatzen du Eliane Noblia lehen auzapez ordea izan dadila saioko presidente 2019ko administrazio kontuen azterketarako.

Aho batez onartua.

Auzapeza gelatik atera da.

Herri biltzarkideei galdegina zaie 2019ko aurrekontu nagusiko administrazio kontuak onartzea, funtzionamendu sailean 2 192 426,49 €ko etekin positibo batekin eta inbertsio sailean 988 680,03 €ko emaitza negatibo batekin, orotara 1 203 746,46 €ko soberakin batekin bukatzen delarik.

Gehiengoz onartua.

Argitxu Hiriart-Urrutyk, Philippe Bacardatzek, Nathalie Aïçaguerrek eta Amaia Beyrie-k kontra bozkatu dute.

Herri biltzarkideei galdegina zaie 2019ko hilobi eta kolumbariumei buruzko aurrekontu gehigarria onartzea, funtzionamendu saila baizik ez duelarik 9 087,56 €ko soberakin batekin.

Aho batez onartua.

Auzapeza gelara itzuli da.

5 - 2019ko emaitzen esleipena (Auzapezak aurkezturik)

Herri biltzarkideei galdegina zaie 2019ko administrazio kontuen emaitza honela esleitzea :

- 2019ko aurrekontu nagusiko funtzionamendu ataleko 2 192 426,49 €ko emaitza positiboa honela banatzea: 988 680,03 € inbertsio sartzetara eta 1 203 746,46 € funtzionamendu sartzetara, 2020ko hasierako aurrekontuan.
- 2019ko hilobi eta columbariumen aurrekontu gehigarriko 9 087,56 €ko emaitza positiboa 2020ko hasierako aurrekontuko funtzionamendu sartzetara.

Aho batez onartua.

6 – 2019ko funts politikaren bilana (Auzapezak aurkezturik).

Herri biltzarkideei galdegina zaie iragan urteko funtsen politikaren bilanaz erabaki baten hartzea :

- Aurrekontu nagusia, bi lur sail erosi dira:
 - Lehena Curutchague etorbideko 1ean, 3 280 €ren truke,
 - eta bigarrena St Michel Garicoitz karrikaren 2an, 704 682 €ren truke.
- Hilobi eta kolumbariumen aurrekontu gehigarria:
 - 13 400 €ko erosketak (2 lekuko 3 hilobi, eta 4 lekuko 3 hilobi),

- 17 379,15 €ko salmentak (6 lekuko 2 hilobi, 4 lekuko 2 hilobi, 2 lekuko 2 hilobi eta 6 errauts hobi)

Gehiengoz onartua.

Argitxu Hiriart-Urrutyk kontra bozkatu du.

7 – Inbertsio gastuetarako aurretiazko kreditu lerro baten irekitzea (Auzapezak aurkezturik).

Herriak hainbat inbertsio programa bideratu zituen 2019 urtean, eta hauen ondorioz 2020an kontratuzko eta diruzko engaiamenduak gelditzen zaizkigu. Alta, 2020 hasieran hartu finantza engaiamenduak kontularitza ikuspegitik ezin ditugu gauzatu, inbertsiorako kredituak 2020ko hasierako aurrekontuan ireki ez diren artean.

Herri biltzarrari eskatu zaio, azalpen txostenean agertzen den bezala, 2020ko inbertsio gastuetarako kredituak 2019ko hasierako aurrekontuko kredituen %25eko heinean aurretiaz irekitzea.

Aho batez onartua.

8 – San Laurendi elizako lanak: Akitania Berria eskualdeko Kultur Gaietarako Eskualdeko Zuzendaritzaren (KGEZ/DRAC) finantzamendu planaren onespena (Aizpuru andereak aurkezturik).

2017ko azaroaren 27ko Herri Biltzarraren erabakiz, Atelier 32 enpresa izan da San Laurendi elizaren zaharberritzeko lanetako 3. faseko 6. atalaren (tindu eta margoak) esleipenduna.

Lan horien karietara, Herriak zur zizelkatu eta margoztatuko erretaula nagusiaren garbitzea eta egonkortzea eskatu zuen. Lan horrek 5 000 € ZK balio du, eta Akitania Berriko KGEZ-k horren %50a har lezake bere gain diru laguntza bidez.

Herri Biltzarrari eskatu zaio frantses Estatuak KGEZ-ren bidez egin finantzamendu aurreikuspen plan proposamena onartzea, azalpen txosten sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Aho batez onartua.

9 – Herriko beka (Saint Jean jaunak aurkezturik).

Herriko Kontseiluari eskatzen dio herriko 33 beka horien esleipena bozkatzera, orotara 12 762 € heldu direlarik 2019-2020 ikasturterako. Dagozkien kredituak 2020 hasierako aurrekontuan daude.

Aho batez onartua.

10 – Jendarmeria: alokairu kontratuaren eraberritzea (Auzapezak aurkezturik).

Othatceguy anderea bilkuratik atera da.

2011ko otsailaren 7ko erabakiz, Herri Biltzarrak Auzapezari baimena eman zion alokatze kontratu berri baten izenpetzeko Pirinio Atlantikoetako finantza publikoen Departamendu zuzendaritzarekin, zeinak frantses estatuaren izenean eta haren ordeztu jarduten baitzuen, jendarmeriaren kaserna gisa erabiltzeko lokalentzat, 2011ko urtarrilean hasi eta bederatzi urterako.

Herri Biltzarrari eskatu zaio Auzapezari baimena ematea 2020ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2028ko abenduaren 31ean bukatuko den kontratu berriaren izenpetzeko. Urteko saria 52 315 €koa izanen da, seihilero ordainduz. Saria hiru urte guzietz berrikusiko da.

Aho batez onartua.

11 – Hilobi berrien salmenta prezioaren finkatzea (Auzapezak aurkezturik).

Hilobi berriak instalatu direla eta, (bi lekuko hiru eta lau lekuko hiru), Herri Biltzarrari eskatu zaio hauen salmenta prezioa finkatzea.

Beren oinarrizko prezioa kontuan izanik, bakoitzaren prezioa honela finkatzea proposatu du:

- 2 115 € bi lekukoentzat,
- 3 245 € lau lekukoentzat.

Aho batez onartua.

12 – AGAZ(ALSH): 2020ko urtarrilaren 1eko prezioak (Noblia andereak aurkezturik).

Herri Biltzarrari eskatu zaio azalpen txosten sintetikoan aurkeztu AGAZ-ren 2020ko urtarrilaren 1etik gorako tarifak finkatzea.

Aho batez onartua.

13 – Bi tenis zelai estalien eraikitzea (Irastorza jaunak aurkezturik).

a) Obra kudeatzailearen izendapena.

Tenisa urte osoan zehar egin ahal izateko eta tenis elkartearen garapena laguntzeko, herriak bi tenis zelai egin nahi izan ditu Michel Labéguerie kirol eremuan. Egitura horrek 1 500 m²ko azalera izango luke. 2 tenis zelai, biltegi bat eta inguruko ibilbidea izanen ditu.

Lan hauetarako 800 000 € ZK esleitu ziren, obra kudeatzaile eta ikerketa gastuez aparte...

Proiektuaren neurria dela eta, obra kudeatzaile baten parte hartzea ezinbestekoa da, hots arkitekto batek ordezkaturiko duen lanbide desberdinez osatu taldea.

Horretarako, 2019ko azaroaren 29an prozedura egokituko deialdia plazaratu genuen lan horien segipena eginen duen obra kudeatzaile horren hautatzeko.

2020ko urtarrilaren 16ko Deialdien Batzordean 5 eskaintza eskuratu ziren.

2020ko urtarrilaren 27ko Deialdien Batzordeak txostenak aztertu eta deialdi araudiaren irizpideen arabera eskaintza ekonomikoki interesgarriena aurkeztu duen Candarchitectes / BT Ingenierie / Acoustique arkitekto taldea hautatu du. Eskaintza 52 000 €koa da.

Herri Biltzarrari galdetu zaio Deialdien Batzordeak egin esleipendunaren proposamenaz iritzia ematea eta Auzapezari merkatu horren eta datxizkion agiri oro izenpetzeko baimena ematea.

Aho batez onartua.

b) Dirulaguntza eskaera.

Inbertsio programa hau Pirinio Atlantikoetako Departamenduak plazaratu duen 2020ko egitasmo egituratzaileetan sar daiteke.

Herri Biltzarrari proposatu dio:

- finantzamendu plana onartzea, dirulaguntza eskaeran aurkeztu den bezala,
- Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren laguntza eskatzea zergaz kanpo %30 arte,
- Auzapezari baimena ematea horretarako urraspide oro egin dezan, eta proiektuari loturiko dokumentu oro izenpe dezan.

Aho batez onartua.

14 – Herriko seinaletikaren hornitzea eta ezartzea (Dor jaunak aurkezturik).

a) Enpresaren izendapena.

2019ko otsailaren 25eko erabakiz Herriko Biltzarrak norabide, merkataria eta interes guneen seinaletika ikerketa onetsi zuen, lurraldeko irudia eta erakargarritasuna hobetzeko xedearekin.

Seinaletikaren inplantazio proiektua eta gida-eskema zehatu ondotik, 2019ko abenduaren 4ean deialdi bat plazaratu zen, prozedura egokituko merkatu baten bidez, herriaren eremuan seinaletika baten egiteko eta menturaz instalatzeko.

2020ko urtarrilaren 16ko Deialdien Batzordean 3 eskaintza eskuratu ziren.

2020ko urtarrilaren 27ko Deialdien batzordeak negoziazio fase bat irekitzea erabaki zuen hautagai bakoitzarekin elkarriketa eginez.

2020ko otsailaren 12ko Deialdien Batzordeak hautagaiek igorri elementu osagarriekin txostenak aztertu eta deialdi araudiaren irizpideen arabera eskaintza ekonomikoki interesgarriena aurkeztu duen SIGNATURE sozietatearen 64 914,85 € ZKko eskaintza hautatu du.

Herri Biltzarrari galdetu zaio Deialdien Batzordeak egin esleipendunaren proposamenaz iritzia ematea eta Auzapezari merkatu horren eta datxizkion agiri oro izenpetzeko baimena ematea.

Aho batez onartua.

b) Dirulaguntza eskaerak.

Inbertsio programa hau frantses estatuaren Landa Lurraldean Ekipamendurako Zuzukiduran (LLEK/DETR) eta Tokiko Inbertsioen Sostengu Zuzukiduran (TISZ/DSIL) sar daiteke.

Herri Biltzarrari proposatu dio:

- honako proiektuaren 74 394,85 € ZKko inbertsio programa onartzea, proiektu sustatzailearen laguntza barne,
- frantses estatuaren laguntza eskatzea LLEK/DETRaren baitan, gehienez operazioaren %40ean,
- frantses estatuaren laguntza eskatzea TISZ/DSILaren baitan, gehienez operazioaren %40ean,
- Auzapezari baimena ematea horretarako urraspide oro egin dezan, eta proiektuari loturiko dokumentu oro izenpe dezan.

Aho batez onartua.

15 – Gizarte ekintzarako elkarte lokal baten eraikitzea: Pirinio Atlantikoetako departamenduari dirulaguntza eskaera (Noblia andereak aurkezturik).

2019ko martxoaren 11ko erabakiz Kanboko herriak gizarte ekintzarako elkarte lokal baten eraikitzeko proiektua onetsi zuen, eta lokal hori Kanboko Gurutze Gorriarentzat izanen zela, bere boluntarioek behar larrian diren jendeak lagundu ahal izan ditzaten.

Inbertsio horretarako diru kopurua 247 000 €koa da eta honela banatzen da:

Aurreikusitako lanak	185 000 € ZK
Panel fotovoltaikoak	22 000 € ZK
Obra kudeatzailea	28 675 € ZK
Zerbitzu sariak, ikerketak eta diagnostikoak	11 325 € ZK

Proiektu hau frantses estatuaren Landa Lurraldean Ekipamendurako Zuzukiduran (LLEK/DETR) sar daiteke eta 101 000 €ko laguntza ukan.

Halaber, inbertsio programa hau Pirinio Atlantikoetako Departamenduak plazaratu duen 2020ko egitasmo egituratzaileen deialdian sar daiteke.

Herri Biltzarrari proposatu dio:

- finantzamendu plana onartzea, dirulaguntza eskaeran aurkeztu den bezala,
- Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren laguntza eskatzea zergaz kanpo %30 arte,
- Auzapezari baimena ematea horretarako urraspide oro egin dezan, eta proiektuari loturiko dokumentu oro izenpe dezan.

Aho batez onartua.

16 – Kirol gelako zoruaren eraberritzea (Irastorza jaunak aurkezturik).

a) Obra kudeatzailearen izendapena.

2019ko urriaren 28ko erabakiz, Herriko Biltzarrak Math Ingénierie bulegoa izendatu du obra kudeatzaile, herriko sei eraikinetan, besteak beste kirol gelan irisgarritasun lanen egiteko, jakinez gela honek publikoa errezibitzen duela eta L tipoan sailkatua dela (nagusiki kirolerako diren erabilera anitzeko gelak)

Eraikin horri dagokionez, irisgarritasunaz hainbat ohar egin dira. Egituraren bisita egin denean, obra kudeatzaileak ohartarazi zuen zorua zaharkitua zela, hainbat lekutan ez zela gehiago itsatsia juntetan ere arazoak bazirela, eta abar

Arazo hauek neurri batean hezetasunaren aurkako babesik ez delako agertu dira (eraiki zen garaian halakorik ez zen beharrezkoa).

Beraz, ezinbestekoa bilakatu da zorua osoki berriz egitea.

Lan hauetarako aurreikuspen aurrekontua 116 700 €koa da (ZK).

Eginkizun gehigarri honentzat Math Ingénierie bulegoak %6ko ordainketa saria eskatzen du, hots 7 000 € ZK.

Orotara lan hauek 123 700 € ZK balioko dute.

Herri Biltzarrari eskatu zaio MATH INGENIERIE obra kudeatzaile izendatzea kirol gelaren zoruaren berriz egiteko, %6ko komisio batekin, hots 7000 € ZK.

Aho batez onartua.

b) Dirulaguntza eskaerak.

Inbertsio programa hau frantses estatuaren Landa Lurraldean Ekipamendurako Zuzukiduran (LLEK/DETR) eta Tokiko Inbertsioen Sostengu Zuzkiduran (TISZ/DSIL) sar daiteke.

Herri Biltzarrari proposatu dio:

- honako proiektuaren 123 700 € ZKko inbertsio programa onartzea,
- frantses estatuaren laguntza eskatzea LLEK/DETRaren baitan, gehienez operazioaren %40ean,
- frantses estatuaren laguntza eskatzea TISZ/DSILaren baitan, gehienez operazioaren %40ean,
- Auzapezari baimena ematea horretarako urraspide oro egin dezan, eta proiektuari loturiko dokumentu oro izenpe dezan.

Aho batez onartua.

17 – Xalbador Kolegioa: THPren berrikuste sinplifikatua (Bardin jaunak aurkezturik).

Tokiko Hirigintza Planaren (THP/PLU) berrikusteko prozedura sinplifikatua abiatzeko erabakia Euskal Hirigune Elkargoko lehendakariak hartu zuen 2019ko maiatzaren 22an, eremuen planoan zegoen akats baten zuzentzeko eta kolegioaren hedapena ahalbidetzeko (jokoan den lur saila UC eremutik UE eremura pasatzea) N eremuaren 2. artikulua aldatzeko (Nbd eremuan egin daitezkeen lan eta eraikuntzei buruzko xehetasunak). <95/95/95% >

Prozedura sinplifikatua frantses hirigintza kodeko L.153-45 eta ondoko artikuluetan zehaztua da.

Aldaketa sinplifikatuan egin behar den bezala, txostena publikoaren esku emana izan da hilabete batez, 2019ko abenduaren 23tik 2020ko urtarrilaren 23ra, biak barne.

Biltzarkideei igorri diegun oharrean aurkitzen dira publikoaren esku utzi zen txostena eta jendeak egin oharren sintesia.

Herriko biltzarrari galdetzen dio Tokiko Hirigintza Planaren aldaketa sinplifikatu horri buruzko iritzia ematea, Euskal Hirigune Elkargoak erabakia hartu ahal izateko.

Aldeko iritzia aho batez.

18 – Bordart etorbidearen zabaltzea – lur sailak eremu publikora sartzeari inkesta publikoaren ondoko erabakia (Bardin jaunak aurrez turik).

Inkesta publikoaren emaitzak ikusirik, Herriko Biltzarrari proposatzen zaio AV 183p – 184p – 195 eta 196p lur saileraz jabetzea eta eremu publikoan sailkatzea. Lur sailek orotara 70 m² egiten dute eta euro sinbolikoaren truke erosi dira.

Aho batez onartua.

19 – Txokolategiko eta Delbarre karriken zabaltzea: lur sailen eskuz aldatzea eta domeinu publikora pasatzea (Bardin jaunak aurrez turik).

Herri Biltzarrari galdetua zaio katastroko AY 182 lur saila euro sinbolikoan erosteari, hain zuzen Txokolategiko eta Delbarre karriketan den 135m²ko lur saila, eta sail hori eremu publikora pasarazteko inkesta publikoa egiteari buruzko erabakia hartzea.

Aho batez onartua.

20 – Euskal Elkargoa: Tokiko Ibilbideen Plana(TIP/PLR) (Etcheleku jaunak aurrez turik).

Euskal Elkargoak, « Elkargoko Ibilbideen Eskema Estrategikoan identifikatu diren bidexken antolamendu, kudeaketa eta animazio » eskumena dela-eta, Tokiko Ibilbide Planaren azterketa bat abiatu du, Ipar Euskal Herriko 95 ibilbideen planaren lehen bertsioa osatzeko.

Horietako bide batek gure herria zeharkatzen du, hain zuzen Arditegia muinoan, Artzainaren hiribidea, Larraldea eta Marienia bideetatik igarotzen dena.

Herriko Biltzarrari eskatu zaio Ipar Euskal Herriko TIPEko ibilbideak herriko bideetatik pasatzeko baimena ematea, eta azkenik ibilbide horiek OIDPan txertatzea (PDIPR).

Aho batez onartua.

21 – THD64: herriko eraikinen konektatzeko hitzarmenak (Goytino jaunak aurkezturik).

« LaFibre 64 » partzuergoak THD 64 sozietatearen esku utzi du Pirinio Atlantikoetako Departamendu osoan %100 zuntz optikoko sarea diseinatu, diruztatu, eraiki, komertzializatu eta mantentzeko Zerbitzu Publikoko Delegazioa .

Zuntz optikoaren hedapen programa horretan herriak bere eraikin publiko guztiak zuntzera (Jario Oso Handiko sarera) konektatzeko aukera du urririk. Horretarako, eraikin bakoitzarentzat hitzarmen bat izenpetu behar dugu THD64 sozietatearekin.

Herri Biltzarrari proposatu zaio Auzapezari baimena ematea enpresa horrekin hitzarmenak izenpetzeko.

Aho batez onartua.

22 – Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoa: elkargoko errepide eta sareen zerbitzuko partzuer izatea (Magis jaunak aurkezturik).

Herri Biltzarrari eskatu zaio herri TKAPko errepide eta sareetako partzuer izatea azalpen txosten sintetikoak azaldu bezala.

Aho batez onartua.

16 – Euskal Hirigune Elkargoa: Karga Transferituen Ebaluaketarako Tokiko Komisioaren (CLECT) txostenaren onartzea (Auzapezak aurkezturik).

Herri Biltzarrari eskatzen dio 2019ko azaroaren 25ean CLECT-ak egin txostena onartzea, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Aho batez onartua.

13 – Langileria: enplegu sortzea (Auzapezak aurkezturik).

Herri Biltzarrari proposatu dio:

- 2020ko martxoaren 3tik goiti, denbora osoko lan postu iraunkor baten sortzea Zerbitzuetako Zuzendari Nagusi eginkizuna betetzeko.

- 2020ko apirilaren 1etik goiti denbora ez osoko enplegu iraunkorra sortzea (14/35en) teknikari laguntzaile bezala, mantenu lanentzat eta eskolaldi inguruko laguntza eskaintzeko.
- 2020ko martxoaren 3tik goiti, Arnagako sasoineko enpleguen egokitzea, azalpen txosten sintetikoak azaldu bezala.

Aho batez onartua.

25 – Auzapezaren erabakien komunikazioa (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari jakitera ematen dizkion auzapez gisa hartu behar izan dituen erabakiak eta bereziki 2019ko urriaren 13a eta 2020ko otsailaren 8a artean hilerriko kontzesioei buruzkoak.

Ez da bozkarik egin.

Solasgai guztiak landurik, saioa 21:45ean bukatu da.